TOLOSAKO
UDALA

**OHIKO OSOKO BILKURA**
**2018.04.24**

Tolosako Udaletxean, 2018ko apirilaren 24an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 24 de abril de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia
Ibai Iriarte San Vicente (Lore Agirre Zipitria zinegotziak botoa haren esku utzi du).
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Kristina Pelaez Errazkin
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Bertaratu ez diren zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

**Eguneko gaia zerrenda**

1. Ondorengo akta onartzea:

**Orden del día**

1. Aprobación de la siguiente acta:

2018ko martxoaren 27ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Musika Eskolako, kultur tailerretako eta Euskaltegiko prezio publikoen onarpena.
3. Tolosako Udaleko hautatuen erregimen ekonomikoari buruz Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartutako ebazpenaren aldaketa.
4. Itxitako ekitaldiko fakturak onartzea.
5. EHBILDU taldearen izendapen hauen berri ematea:
   Batzorde informatiboetako ordezkariak eta ordezkoak.
   Bozeramaileordea.
6. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko martxoaren 1etik 28ra (2018/417- 2018/650).
7. EHBILDU taldeak aurkezturiko mozioa, Asuncion klinikako langileen egoerari buruzkoa.
8. EAJ-PNV, EHBILDU eta PSE-EE taldeak aurkezturiko mozioa Pentsio duinen alde.
9. Galderak eta eskaerak.

Sesión ordinaria del 27 de marzo de 2018.
2. Aprobación de los precios públicos de la Academia de Música, de los talleres culturales y del Euskaltegi.
3. Modificación de la resolución adoptada por el Pleno de la Corporación sobre el régimen económico de los electos y electas del Ayuntamiento de Tolosa.
4. Aprobación de las facturas del ejercicio cerrado.
5. Comunicación de los siguientes nombramientos de EHBILDU:
   Representantes de las comisiones informativas y sus suplentes.
   Portavoz suplente.
6. Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 28 de marzo de 2018 (2018/417-2018/650).
7. Moción presentada por el grupo municipal EHBILDU sobre la situación de los trabajadores y las trabajadoras de la Clínica Asunción.
8. Moción presentada por los grupos municipales EAJ-PNV, EHBILDU y PSE-EE a favor de una pensión digna.
9. Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. **Ondorengo akta onartzea: 2018ko martxoaren 27ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.**

1. **Aprobación de la siguiente acta: Sesión ordinaria del 27 de marzo de 2018.**

Izenburuan aipatutako akta aho batez **onartu** da.

**2. Musika Eskolako, kultur tailerretako eta Euskaltegiko prezio publikoen onarpena.**

**2. Aprobación de los precios públicos de la Academia de Música, de los talleres culturales y del Euskaltegi.**

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia (Ogasun batzordeburua): *Kasu honetan Musika Eskolako Kultur tailerra eta Euskaltegiko prezio publikoen onarpena dakarkigu. Urtero apirilean onartzen dugu hurrengo kurtsokoa. Kasu honetan , 2018-2019 ikasturteko prezioak finkatuko ditugu hiru arloetan, Musika Eskola, Kultur tailerrak eta Euskaltegia.*
*Musika eta Kultur tailerretan bi aldaketak daude. Bat, urtero egiten dugun prezio igoera, kontutan hartuta Hego Euskal Herriko KPI-a, apirilaren 13an argitaratutakoa, % 1,15a. Bestalde, aurten egiten den aldaketa, orain arte ordenantza fiskaletan bi prezio hauek azaltzen ziren Tasen zerrendetan eta kasu honetan, aurten proposatzen dugu prezio publikora pasatzea. Dokumentazioan azaltzen da, Urtarrilaren 11 2/1990 Foru arauan azaltzen zen argi prezioen kontzeptua zein zen. Eta kontzeptu hori jarraituz ikusten da bai Musika eskola eta bai Kultur tailerreko ekintzak sartuko egingo zirela prezio publiko horietan. Argitu beharra dago hau aldaketa administratiboa soilik dela eta ez duela eraginik ez Musika eskola eta Kultur Tailerreko erabiltzaileengan.*
*Euskaltegikoari dagokionez, proposatzen dira bost aldaketa. Aldaketa hauek daude landuta eta adostuta, alde batetik, Euskaltegiko zuzendariarekin, beste batetik Euskarako departamentuekin eta, noski, Kontuhartzailearen departamentuarekin. Proposatutako aldaketa bat, Musika eta Kultura Tailerretan arrazoi berdinegatik tasetik prezio publikoetara pasatzera eta baita ere, ikasturte prezioaren igoera Hego Euskall Herriko KPla % 1,15. Beste arlo batean, Euskaltegian A1, a2 eta B1 mailetan, orain arte kobratzen zen materiala jasotzen zituzten ikasketengatik baina aurten liburua izango dute. Beraz, materiala ez da kobratuko eta prezio publikoetan desagertuko zen. Baita, Tolosan erroldatutako ikasle batzuk baldintza batzuk betez gero, horien artean ze zegoen zela, famili unitateko kide bakoitzarekiko urtez bataz besteko ordainsari gordina gainditzen ez bazuen 10.302,00 € salbuetsita egongo ziren matrikula ordainketan. Egin duguna izanda datu zenbaki edo datu hori eguneratu kontutan edukita gaur egungo eszenara. Eta baita ere, bestalde eta azkenengo aldaketa, Tolosan erroldatutako ikasleei orain arte tasa bezala jarrita zegoenean ematen zitzaien zen baita ere Euskaltegia jarritako baldintza batzuk betetzen baziren ematen zitzaien hobaria eta orain egingo duguna da diru-laguntza eman eta diru-laguntza hori emango da bigarren epean ordaintzen dutenean, hau da ekainean. Aipatu hemen ere ez dagoela inongo eraginik ikasleengan aldaketa administratiboa soilik dela."*

\- - - - - - - - - -

**OGASUN BATZORDEAK 2018KO APIRILAREN 17AN EMANDAKO IRIZPENA**

MUSIKA ESKOLA, KULTUR TAILERRAK ETA EUSKALTEGIKO KUOTAK

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauak prezio publikoaren kontzeptua argitzen du:

Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako lurralde historikoaren eskumenekoak diren zerbitzuak emateagatik edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldin eta, sektore pribatuak ere zerbitzu edo jarduera horiek eskaintzen dituelarik, administratuek borondatez eskatzen badituzte.

Musika Eskolako, kultur tailerretako eta Euskaltegiko zerbitzuak prezio publiko bidez kudeatu behar dira, eta ez tasa bidez, goian aipatzen den kontzeptuaren barnean gaudelako.

Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 43. artikuluak ondorengoa dio:

" Gipuzkoako udalerriek, udalbatzarraren aldez aurreko erabakiarekin eta araudi honi jarraiki, prezio publikoak ezarri eta exigitu ahal izango dituzte udalerriaren eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik, baldin eta foru arau honek 20.1 artikuluaren B) letran jasotako zirkunstantziarik gertatzen ez bada."

Musika Eskolako, kultur tailerretako eta Euskaltegiko ikasturteetan ordaindu beharreko zenbatekoak tasa izatetik prezio publiko izatera pasatzea diktaminatu da bertaratutakoen aldeko botoekin.

Zenbateko guztiei martxoko urtearteko KPIa aplikatzea diktaminatu da, hau da, % 1,15.

**MUSIKA ESKOLA**

2018-2019 ikasturterako prezio publikoen kopuruak eta aplikazio arauak honela geratzen dira:

| MUSIKA ESKOLA ZERBITZUA | SERVICIO ACADEMIA DE MUSICA | OROKORRA (General) 2017-2018 | TOLOSA 2017/2018 | OROKORRA (General) 2018-2019 | TOLOSA 2018/2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| A) Musika eskola | Escuela de Música: | | | | |
| 1.maila | 1º nivel | 278,00 | 186,00 | 281,00 | 188,00 |
| 2.maila | 2º nivel | 831,00 | 552,00 | 841 | 558,00 |
| 2.maila solfeorik gabe | 2º nivel sin solfeo | 551,00 | 368,00 | 557,00 | 372,00 |
| 3.maila | 3º nivel | 997,00 | 666,00 | 1.008,00 | 674,00 |
| 3.maila, osagarririk gabe | 3º nivel, sin complementaria | 693,00 | 462,00 | 701,00 | 467,00 |
| 4.maila | 4º nivel: | | | | |
| a) Musika taldea | a) Conjunto musical | 138,00 | 93,00 | 140,00 | 94,00 |
| b) instrumentua + musika taldea | b) instrumento + conjunto musical | 693,00 | 462,00 | 701,00 | 467,00 |
| Ikasle errefortzatuak | Alumnos reforzados | 1.274,00 | 851,00 | 1.289,00 | 861,00 |
| Informatika musikala | Informática musical | 278,00 | 186,00 | 281,00 | 188,00 |
| Bigarren instrumentua | Segundo instrumento | 278,00 | 186,00 | 281,00 | 188,00 |

## APLIKAZIO ARAUAK

1. TOLOSA tarifak aplikatuko zaizkie dagokion zerbitzurako eskaera egin den eguna baino gutxienez bi hilabete lehenagotik Tolosan erroldatuta dauden herritarrei.

Tolosaldean erroldatutakoei ere aplikatuko zaizkie, betiere jatorrizko udalek tolosarrei ere beren herritarrei aplikatzen dizkieten tarifak aplikatzen badizkiete Musika Eskolari dagokion Eranskin honetako zerbitzu guztietan.

2. HOBARIAK

2.1. Tolosaldean erroldatuta dauden familia ugariek % 50eko hobaria dute.

2.2. Eskaera egiten dutenei, baldin eta Tolosan erroldatuta badaude eta gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, % 80ko hobaria edukiko dute.

3.- ORDAINKETA.

Matrikularen zenbateko osoa hiru alditan ordainduko da:

- % 60, matrikula egiteko unean
- % 20, azaroaren 15etik 30era
- % 20, otsailaren 1etik 15era

Ikastaroa hasi aurretik, baja eskatu eta matrikula egiterakoan ordaindu duten zenbatekoa itzultzeko eskatzen dutenek ez dute eskubiderik izango ikastaro osoari dagokion tarifaren % 20a jasotzeko.

Abenduaren 15a baino lehen baja eskatzen dutenek eskubidea izango dute ikastaroaren hirugarren kuota ez ordaintzeko, baldin eta baja nahitaezko arrazoiren batek eragin badu. Nolanahi ere, Alkatetza-dekretu bidez aldez aurretik akordioa hartu behar du eta Kultura Batzordeak aldeko diktamina eman behar du.

**KULTUR TAILERRAK**

2018-2019 ikasturterako prezio publikoen kopuruak eta aplkazio arauak honela geratzen dira:

| KULTUR LANTEGIAK IKASTAROA | TALLERES CULTURALES CURSO | TARIFA OROKORRA (General) 2017-2018 | TARIFA TOLOSA 2017/2018 | TARIFA OROKORRA (General) 2018-2019 | TARIFA TOLOSA 2018-2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Pintura ikastaroa.14 urtez gorakoak | Curso de pintura. Mayores de 14 años | 287,00 | 191,00 | 290,00 | 193,00 |
| 2. Eskulanak.6-14 urte bitartekoak | Manualidades. De 6 a 14 años. | 211,00 | 140,00 | 213,00 | 142,00 |
| 3. Zeramika ikastaroa, urteko | Curso de cerámica, anual | 287,00 | 191,00 | 290,00 | 193,00 |
| 4. Antzerki ikasturtea | Curso de teatro, anual | 257,00 | 170,00 | 260,00 | 172,00 |
| 5. Argazkigintza (100 ordu) | Fotografía (100 horas) | 345,00 | 229,00 | 349,00 | 232,00 |
| 6. Balleta | BalletoBallet | 219,00 | 145,00 | 222,00 | 147,00 |
| 7. Baleta aurreratua | Ballet avanzado | 288,00 | 199,00 | 291,00 | 201,00 |
| 8. Balleta (puntak) | Ballet (puntas) | 83,00 | 54,00 | 84,00 | 55,00 |
| 9. Dantza garaikidea | Baile contemporaneo | 288,00 | 199,00 | 291,00 | 201,00 |
| 10. Egur taila | Talla de madera | 287,00 | 191,00 | 290,00 | 193,00 |
| 11. Ehoziriak eta bainika | Encaje de bolillos y vainica | 287,00 | 191,00 | 290,00 | 193,00 |

## APLIKAZIO ARAUAK

1.- Tarifatutako gaiei buruzko espezializazio ikastaroak antolatzeko ahalmena izango du Udalak. Ikastaro horien prezioa kostuaren araberakoa izango da. Era berean, bestelako ikastaroak antolatzea Udalaren eskumena da. Horrelakoetan, dagozkien kostuen araberako prezio publikoak finkatuko ditu Udalak.

2.- Ordainarazpena matrikula egiterakoan sortuko da. Matrikula egiteko nahitaezkoa da aurreko ikastaroko kuota ordainduta edukitzea.

3. Ikastaro guztien aurretik matrikulazio epealdia zabalduko da. Matrikula lantegi bereko bulegoetan egingo da.

4.- Materialaren ordainketa Zuzendaritzak berak erabakiko du nola egin.

5.- Ordainketa: Matrikularen zenbatekoa ordaintzeko aukerak:

5.1. Ikasturte osoa (urritik ekainera).
- 5.1.1. Kopuru osoa matrikula egiterakoan.
- 5.1.2. Matrikularen zenbateko osoa bi zatitan ordaindu ahal izango da:
  - Lehendabizikoa, % 50ekoa, matrikula egiterakoan
  - Bigarrena, % 50ekoa, abenduaren lehen hamabostaldian.

5.2 Urritik abendura: % 50

5.3 Urtarriletik ekainera: % 75

5.4 Martxotik ekainera: % 50

Matrikula egiteko garaian, ordainketa helbideratu ahal izango da. Bestela, agiria bidaliko zaie bertan aipatutako epealdian ordainketa egiteko.

6.- Ikasturtea hasi ondoren sortutako baja eskaerak eta matrikula berriak onartzeko ahalmena alkateak izango du. Matrikula berriak sortu diren taldeetan geratu diren hutsuneak bete bitartekoak soilik izango dira. Alkateak ahalmena izango du talde bakoitzeko matrikula kopurua mugatzeko.

7.- Eskaera egiten dutenei, baldin eta Tolosan erroldatuta badaude eta gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, % 80ko hobaria izango dute."

8.- TOLOSA tarifak aplikatuko zaizkie dagokion zerbitzurako eskaera egin den eguna baino gutxienez bi hilabete lehenagotik Tolosan erroldatuta dauden herritarrei.

Tolosaldean erroldatutakoei ere aplikatuko zaizkie, betiere jatorrizko udalek tolosarrei ere herritarrei aplikatzen dizkieten tarifak aplikatzen badizkiete zerbitzu guztietan.

9.- Tolosaldean erroldatuta dauden familia ugariek % 50eko hobaria dute.

10.- Ikastaroa hasi aurretik baja eskatu eta matrikula egiterakoan ordaindu duten zenbatekoa itzultzeko eskatzen dutenek ez dute eskubiderik izango ikastaro osoari dagokion tarifaren % 20a jasotzeko.

Abenduaren 15a baino lehen baja eskatzen dutenek eskubidea izango dute ikastaroaren bigarren kuota ez ordaintzeko, baldin eta baja nahitaezko arrazoiren batek eragin badu. Nolanahi ere Alkatetza-dekretuaren bidez aldez aurretik akordioa hartu behar du eta Kultura batzordeak aldeko diktamena eman behar du.

**EUSKALTEGIA**

- A1- A2 eta B1 mailetan ez da materiala banatzen. Liburu bat erosten dute ikasleek. Beraz, ordenantza fiskaletatik kentzea diktaminatzen da.

- Lehen hobaria ematen zitzaien Tolosan erroldatutako ikasleei baldintza batzuk betetzen bazituzten (asistentzia, azterketara aurkeztea,...). Hobari hori kentzen da, eta kurtso bukaeran, ordainketaren 2. epea ordaindu behar dutenean, diru-laguntza emateko asmoa dago. Ordenantza fiskaletan, 2. epea ekainean egingo dela azaltzen da, eta hobaria kendu da.

2018-2019 ikasturterako prezio publikoen kopuruak eta aplikazio arauak honela geratzen dira:

| EUSKALTEGIA | EUSKALTEGIA | 2017-2018 | 2018-2019 |
|---|---|---|---|
| 1.- Egunean 2,5 ordu, astean 10, 9 hilabete. | 1.- 2,5 horas diarias, 10 semanales, 9 meses. | | |
| Matrikula | Matrícula | 409,00 | 414,00 |
| Materiala | Material | | |
| A1- A2 - B1mailak | Niveles A1 - A2 y B1 | | |
| B2 maila | Nivel B2 | 33,00 | 33,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 45,00 | 46,00 |
| 2.- Egunean 2 ordu, astean 8, 9 hilabete. | 2.- 2 horas diarias, 8 semanales, 9 meses. | | |
| Matrikula | Matricula | 329,00 | 333,00 |
| Materiala | Material | | |
| A1- A2 - B1mailak | Niveles A1 - A2 y B1 | | |
| B2 maila | Nivel B2 | 27,00 | 27,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 44,00 | 45,00 |
| 3.- Modulu konbinatuak. Astean 8 ordu, 9 hilabete: 5 ordu aurrez-aurrez eta 3 ordu autoiikaskuntza, tutoritzarik gabe. | 3.- Módulos combinados. 8 horas semanales, 9 meses: 5 horas presenciales y 3 horas autoaprendizaje sin tutoría. | | |
| Matrikula | Matrícula | 228,00 | 231,00 |
| Materiala | Material | | |
| A1- A2 - B1mailak | Niveles A1 -A2 y B1 | | |
| B2 maila | Nivel B2 | 27,00 | 27,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 44,00 | 45,00 |
| 4.- Egunean 2 ordu, astean 6, 9 hilabete. | 4.- 2 horas diarias, 6 semanales, 9 meses. | | |
| Matrikula | Matrícula | 255,00 | 258,00 |
| Materiala | Material | | |
| A1- A2 - B1mailak | Niveles A1 -A2 y B1 | | |
| B2 - alfabetatzen | Nivel B2 -alfabetización | 19,00 | 19,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 32,00 | 32,00 |
| 5.- Egunean 2,5 ordu, astean 5 ordu, 9 hilabete. | 5.- 2,5 horas diarias, 5 semanales, 9 meses. | | |
| Matrikula | Matrícula | 205,00 | 207,00 |
| Materiala, HABEren azterketak prestatzeko taldeak. | Material, grupos preparación exámenes de HABE. | | |
| B1 maila | Nivel B1 | | |
| B2 - alfabetatzen | Nivel B2 - alfabetización | 16,00 | 16,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 27,00 | 27,00 |
| C2 maila | C2 maila | 142,00 | 144,00 |
| 6.- Egunean 2 ordu, astean 4, 9 hilabete. | 6.- 2 horas diarias, 4 semanales, 9 meses. | | |
| Matrikula | Matrícula | 167,00 | 169,00 |
| Materiala | Material | | |
| A1- A2 - B1mailak | Niveles A1 -A2 y B1 | | |
| B2 maila | Nivel B2 | 16,00 | 16,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 22,00 | 22,00 |
| 7.- Autoikaskuntza | 7.- Autoaprendizaje | | |
| Ikasturte osoa, matrikula eta materiala barne. | Curso completo, matrícula y material. | 640,00 | 647,00 |
| Ikasturtearen zatia, tutoretzako, matrikula eta materiala barne. | Curso no completo, por tutoría, matrícula y material incluídos. | 40,00 | 40,00 |
| 8.- Bestelako moduluak, orduko. | 8.- Otros módulos, por hora. | | |
| Matrikula | Matrícula | 1,20 | 1,20 |
| Materiala | Material | 0,09 | 0,09 |

APLIKAZIO ARAUAK

1.- Udalaren esku dago tarifatu ez diren ikastaroak antolatzea eta dagozkien prezio publikoak ezartzea.

2.- Ordaintzeko beharra eskolak hasi bezain azkar sortzen da.
Matrikulatzeko ezinbesteko baldintza da aurrez ordainduta edukitzea aurreko urteko matrikula.

3.- ORDAINKETA EPEAK:

3.1. Ikaslea **Tolosan erroldatuta** badago matrikula egin baino 15 egun lehenago gutxienez. Ikasturte arrunta bi eratara ordaindu ahal izango da:

- Epe bakarrean: matrikula osoa eta, hala badagokio, materiala, eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.
- Bi epetan:

* Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen:

Aurrez aurreko eskoletan eta modulu konbinatuetan ikasleek matrikularen % 25 (B2 arte), % 50 (C1) edo % 75 (C2) ordaindu beharko dute.

Autoikaskuntzaren kasuan, prezio publikoaren % 25 ordaindu behar da.

* Bigarren epea: ekainaren 30a baino lehen, falta den portzentaia.

3.2. Ikaslea Tolosan **erroldatuta ez badago**:

3.2.1. Ikasturte arrunta bi eratara ordaindu ahal izango da:

- Epe bakarrean: matrikula osoa eta, hala badagokio, materiala, eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.
- Bi epetan:
  * Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen, matrikularen 2 heren eta, hala badagokio, materiala.
  * Bigarren epea: abenduaren 15a baino lehen, matrikularen azken herena.

3.2.2. Autoikaskuntzako ikastaroa bi eratara ordaindu ahal izango da:

- Epe bakarrean: prezio publiko osoa eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.

- Hiru epetan:

  * Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen, prezio publikoaren erdia.
  * Bigarren epea: abenduaren 15a baino lehen, prezio publikoaren laurdena.

* Hirugarren epea: urtarrilaren 15a baino lehen, prezio publikoaren azken laurdena.

3.3. Alkateak gehitu eta luza ditzake ordainketa egiteko epeak kasu berezietan, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordearen eskariz.

3.4. Gainontzeko ikastaroak epe bakarrean eta ikastaroa hasi aurretik ordaindu beharko dira.

3.5. Matrikula egiterakoan ikasleek kontu korrontea eman beharko dute ordainketa helbideratzeko.

4. Azaroaren 30a baino lehen baja eskatzen dutenek eskubidea izango dute ikastaroaren gainerako kuotak ez ordaintzeko, baldin eta baja nahitaezko arrazoiren batek eragin badu. Erabakia alkateari dagokio, aurrez Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak aldeko diktamena eman ondoren.

5.-Matrikularik ez dute pagatu beharko matrikula egin baino 15 egun lehenago Tolosan erroldatuta egoteaz gain, jarraian aipatutako beste baldintza hauetakoren bat betetzen dutenek:

- Familia unitateko kide bakoitzak urteko batez beste 10.302,60 euroko diru sarrera gordina ez jasotzea.
- Eskaera egiten dutenak betetzea gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak. Kasu honetan, materialaren kopurua ere ez dute ordaindu beharko.
- Familia ugariaren txartela eguneraturik edukitzea.

Atal honetan jasotakoaz baliatu nahi dutenek Udalean aurkeztu beharko dituzte eskatutako datu eta dokumentu guztiak eta hauek egiaztatzeko egin behar diren azterketa guztiak onartu beharko dituzte.

Datuak eta dokumentuak urteko edozein momentutan azter daitezke.

Hala ere, hurrengo ikasturteetan baldintza beretan matrikulatu ahal izateko baldintza hauek bete beharko dituzte:

+ Aurrez aurreko eta modulu konbinatuetako ikasleak: ikastaroa amaitu eta ikasturtean gutxienik % 85eko asistentzia izatea. Eskolara joan ez izana zuritzeko, gaixotasun-ziurtagiriak baino ez dira onartuko. Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiri sinatua ekartzea.

+ Autoikaskuntzako ikasleak: ikastaroa amaitu eta aurrez aurreko zein autoikaskuntzak dituen lau ataletan % 85eko parte hartzea izatea ( tutoretza,

mintzapraktika, multimediaren erabilera eta etxeko lanak). Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiri sinatua ekartzea.

Baldintza horiek euskaltegiko zuzendariak sinatutako agirien bidez zuritu beharko ditu.

6.- Taulan azaltzen diren ikastaroak eskainiko dira, beti ere, aldez aurretik HABEk onartutakoak badira.

Aurreko guztia kontuan izanda, bertaratutako guztien aldeko botoekin, honako hau proposatzen zaio Tolosako Udaleko Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**LEHENA.-** Musika Eskolako, kultur tailerretako eta Euskaltegiko kuotak tasa izatetik prezio publiko izatera pasatzea goian aipatzen diren kopuruekin eta aplikazio arauekin.

**BIGARRENA.-** Tasa izaera kentzearen aldaketa 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

**HIRUGARRENA.-** Prezio publiko berriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta 2018-2019 ikasturtean sartuko dira indarrean.

Udalbatzaren bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Musika Eskolako, kultur tailerretako eta Euskaltegiko kuotak tasa izatetik prezio publiko izatera pasatzea proposamenean aipatzen diren kopuruekin eta aplikazio arauekin.

**3. Tolosako Udaleko hautatuen erregimen ekonomikoari buruz Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartutako ebazpenaren aldaketa.**

**3. Modificación de la resolución adoptada por el Pleno de la Corporación sobre el régimen económico de los electos y electas del Ayuntamiento de Tolosa.**

Parte-hartzeak::

Alkateak honako hau adierazi du: "Martxoaren 28an aurkeztu zuen EHBildu taldeak eskaera, legeak horrela ahalbideratzen duelako oposizioko talderik handienari arduraldi osoko zinegotzi bat izateko eskubidea, beti ere, udalerriak 10.000 biztanle baino gehiago baditu eta hori da gure kasua. Kasu honetan, Kristina Pelaezek % 80ko arduraldia hartuko du EUDELek gomendatutako irizpideak kontuan hartuz."

- - - - - - - - - - -

**OGASUN BATZORDEAK 2018KO APIRILAREN 17AN EMANDAKO IRIZPENA.**

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** Tolosako Udalbatzak, 2015eko uztailaren 7an egindako Osoko Bilkuran, besteak beste, ondoko erabaki hauek hartu zituen:

"***Lehena:***

*a) Onartzea dedikazio esklusiboko karguak eta berauen urteko ordainsariak, honela:*

| ***KARGUA*** | ***ORDAINSARIA*** |
|---|---|
| *Alkatea liberatua* | *44.000 euro urtean* |
| *Alkateorde liberatua* | *44.000 euro urtean* |

*Atal honetan jarritako kantitate hauek 2015eko ekainaren 13tik aplikatzea alkateari eta uztailaren 1etik alkateordeari.*

Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2015eko uztailaren 30ean.

**BIGARRENA.-** Horretaz gain, Udalbatzak 2016ko abenduaren 29an egindako Osoko Bilkuran, ondoko hauek ebatzi zituen:

*"**Lehenik.-** 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera bi liberazio berri onartzea, honako ezaugarriekin:*

*1.- Liberazioa, dedikazio esklusiboa, % 100eko lanaldiarekin eta 42.500 euro gordin urtean jasoko dituena.*

*2..- Liberazio % 40ko lanaldiarekin, dedikazio partzialez eta 17.500 euro gordin urtean jasoko dituena.*

***Bigarrenik.-** Aurreko puntuan aipatutako ordainsari hauek 2017 urterako % 1ean igoko balira, 42.965 euro gordin urtean eta 17.675 euro gordin urtean jasoko lituzke kargu bakoitzak zehazki.*

***Hirugarrenik.-** Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea."*

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala kontsultatu ondoren (2017ko ekaina bitartean), ez da inolako iragarkirik aurkitu.

**HIRUGARRENA.-** 2018ko martxoaren 28an aurkezturiko idazkian (Erregistro zenbakia: 2.714), EH-Bildu udal taldearen ordezkari Iñaki Irazabalbeitia jn.ak ondorengo eskaera hau aurkeztu du: *Eusko Legebiltzarraren 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, oposizioko talderik handienari arduraldi osoko zinegotzi bat izateko eskubidea demaio 10.000tik gorako biztanleko herrietan.*

Aipaturiko araua kontuan hartuta, EH-Bildu udal taldeko ordezkari Kristina Pelaez Errazkin andrearentzat % 80ko arduraldia, dagozkion ondorio guztiekin, onartzea eskatu du, 2018ko apirilaren 1eko atzeraeraginarekin.

**LAUGARRENA.-** Aurkezturiko idazkian, eskatzaileak ez du zehaztu ardura honengatik eskatzen den ordainsaria. Hots, kasu honetan, EUDELek gomendaturiko irizpideak hartuko dira kontuan.

## AZTERKETA JURIDIKOA

## 1.- UDAL KORPORATIBOEN DEDIKAZIOAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 75. artikuluan arautzen du udal korporazioetako kideen erregimen ekonomikoa, eta zatitako dedikazioaren kasuan ondoko hau xedatzen du: "**2.** *Los miembros de las Corporaciones locales que desempeñen sus cargos con dedicación parcial por realizar*

*funciones de presidencia, vicepresidencia u ostentar delegaciones, o desarrollar responsabilidades que así lo requieran, percibirán retribuciones por el tiempo de dedicación efectiva a las mismas, en cuyo caso serán igualmente dados de alta en el Régimen General de la Seguridad Social en tal concepto, asumiendo las Corporaciones las cuotas empresariales que corresponda, salvo lo dispuesto en el artículo anterior. Dichas retribuciones no podrán superar en ningún caso los límites que se fijen, en su caso, en las Leyes de Presupuestos Generales del Estado. En los acuerdos plenarios de determinación de los cargos que lleven aparejada esta dedicación parcial y de las retribuciones de los mismos, se deberá contener el régimen de la dedicación mínima necesaria para la percepción de dichas retribuciones."*

Ordainsari hauek publikoak dira, eta hauei buruzko akordioak argitaratu behar dira, aipatu artikuluaren 5. atalean xedaturiko eran: ***5.*** *Las Corporaciones locales consignarán en sus presupuestos las retribuciones, indemnizaciones y asistencias a que se hace referencia en los cuatro números anteriores, dentro de los límites que con carácter general se establezcan, en su caso. Deberán publicarse íntegramente en el "Boletín Oficial" de la Provincia y fijarse en el tablón de anuncios de la Corporación los acuerdos plenarios referentes a retribuciones de los cargos con dedicación exclusiva y parcial y régimen de dedicación de estos últimos, indemnizaciones y asistencias, así como los acuerdos del Presidente de la Corporación determinando los miembros de la misma que realizarán sus funciones en régimen de dedicación exclusiva o parcial.*

Udal ordezkarien ekonomia-eskubideen eta arduraldia-eskubideen kasuan, Eusko Legebiltzarraren 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, ondoko hauek xedatzen ditu, besteak beste, bere 32. eta 33. artikuluetan:

- Mila biztanletik gorako udalerrietan, alkateek, beren-beregi uko egiten ez badiote, arduraldi esklusiborako eskubidea dute. Ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute eta alta emango zaie Gizarte Segurantzan.
- Alkateak proposatuta, osoko bilkurak zehaztuko ditu arduraldi esklusiboa edo partziala izango duten karguak edo korporazioko kideak, eta dagozkien ordainsariak, baita arduraldi partzialeko kasuetan ordainsariak jaso ahal izateko gutxieneko dedikazioa ere.
- Halaber, udalbatza plenoak zehaztuko ditu arduraldirik ez duten zinegotzien ordainsariak bileretan parte hartzeagatik, eta korporazioko kide bakoitzak urtean gehienez ere zenbat jaso ahal izango duen bertaratzeengatik.
- Toki-erakundeetako kideen kalte-ordainen erregimena ere zehaztuko du udalbatza plenoak.
- Oposizioko taldeen kasuan, 10.000 biztanletik gorako udalerriek bermatu egingo dute oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, arduraldi esklusiboa izatea, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko.

- Eskubide hori hauteskunde-emaitzaren arabera ordezkari-kopuru handiena duen alderdi edo koalizioari dagokio

Tolosako udalerrian 2015eko ekainaren 2ko Udal Hauteskundeetako emaitzak ikusirik, eta handik sorturiko udal gobernuaren osaketa kontutan harturik, ondorioztatu da EH-Bildu koalizioa oposizioko talde nagusia dela.

Beraz, aipatu den araua kontuan harturik, EH-Bildu udal taldeko kide batek eskubidea du arduraldi esklusiboko erregimenean aritzeko. Eskubide hau gauzatzeko jardunbidea honako hau izango litzateke:

- Udalbatzaren osoko bilkurak zehaztu behar ditu zinegotziaren arduraldiaren erregimena (osoa ala zatikakoa), eta dedikazio horri dagozkion ordainsariak.
- Udal taldeak zehaztu behar du arduraldi hori zein zinegotzik beteko duen.
- Zinegotziaren izendapena, dekretu bidez egingo da, dagozkion eskubideetarako.

## 2.- ZINEGOTZIEN ARDURALDIARENGATIK ORDAINSARIEN MUGA

Dedikazioengatiko ordainsariei dagokionez, 27/2013ko Legeak, abenduaren 27koak, Toki-Entitateen Arrazionalizazio eta Jasangarritasuna arautzen dituenak, sortu zuen 75.bis artikuluan korporazioko kideen ordainsariak mugatu zituen.

Hala ere, 27/2013 Legeak aldatu zuen, era berean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarria –Tokiko administrazioaren arloan Foru-Araubidearen berezitasunak arautzen dituena-, honako hau erantsiz, besteak beste: *11. "En el marco de los objetivos de estabilidad presupuestaria y en virtud de las competencias y facultades que en materia de régimen local y financiación local les confiere la disposición adicional primera de la Constitución Española, el Estatuto de Autonomía, la Ley del Concierto Económico y la disposición adicional segunda de la Ley de Bases de Régimen Local, los órganos forales de los Territorios Históricos vascos determinarán los límites máximos totales del conjunto de las retribuciones y asistencias de los miembros de las Corporaciones Locales, del personal eventual y del resto de personal al servicio de las Corporaciones Locales y su sector público y de los funcionarios con habilitación de carácter nacional. La determinación de tales retribuciones atenderá a los principios y estructura establecidos, en su caso, por la legislación estatal."*

Eskumen hau garatu zen, lehen unean, azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauaren bidez, bere bosgarren artikuluaren aurreneko atalean ondoko hau xedatu zelarik: *1. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrei buruzko ekitaldi bakoitzeko foru arauan zehaztuko dira toki korporazioetako kideen ordainsarien eta asistentzien gehieneko mugak.*

Ondoren, 2015eko uztailaren 1ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ekainaren 30eko 1/2015 Foru Dekretu-Araua argitaratu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki

korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehazteko, udalerri bakoitzeko biztanle-kopurua kontuan hartuta. Tolosako kasuan, honako hauek dira jarritako mugak:

**10.001etik 20.000ra: Eusko Jaurlaritzako zuzendaria 67.757,90 € (2017)**

Oposizioko kideen kasuan, EUDELek ondoko proposamena egin die Autonomia Erkidegoko udalei: arduraldi osoko oposizioko zinegotzien ordainsaria dedikazioa duen gobernu taldeko gutxien kobratzen duen kidearena izango da, % 10eko kenkaria aplikatuz.

Tolosako udal korporazioren kasuan, gutxien kobratzen duen gobernuko zinegotzi liberatuak urteko 42.924,98 € jasotzen ditu arduraldi osoarengatik. % 10eko kenkaria aplikatuz, urteko ordainketa 38.632,48 €-koa izango litzateke. EH-Bildu taldeak egin duen eskaeraren arabera, % 80ko zatikako arduraldiari dagokion ordainsaria urteko 30.905,90 €-koa da.

Proposamen hau 1/2015 Foru Dekretu-Arauak xedaturiko mugen barruan dago.
Halaber, Arrazionalizazio Legeak mugatu du dedikazioen erregimena duten korporatiboen kopurua, horretarako 7/1985 Legean 75.ter artikulua sortu duelarik:

*1. De conformidad con lo establecido en el artículo 75 de esta Ley, la prestación de servicios en los Ayuntamientos en régimen de dedicación exclusiva por parte de sus miembros deberá ajustarse en todo caso a los siguientes límites:*

- ...............
- *f) En los Ayuntamientos de Municipios con población comprendida entre 15.001 y 20.000 habitantes, los miembros que podrán prestar sus servicios en régimen de dedicación exclusiva no excederá de **siete**.*

Muga hau ere errespetatzen da egindako proposamenean.

## 3.- ARDURALDIA DUEN ZINEGOTZIAREN ARAUBIDEAREN INDARRALDIA

Oposizioko zinegotziaren arduraldiari dagozkion eraginak izendapena egiten den unetik sortuko dira.

Azkenik, espedientean dago udal kontuhartzaileak egindako txostena, egiaztatzen duena nahikoa kreditua badagoela erabaki honek dakartzan ondorio ekonomikoei aurre egiteko.

Korporatiboen araubide ekonomikoa onartu edo aldatzeko organo eskuduna Udalbatzaren osoko bilkura da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko guztia kontuan izanda, honako hau proposatzen zaio Tolosako Udaleko Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko hautatuen erregimen ekonomikoari buruz Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartutako ebazpenak aldatzea, honakoaren arabera:

**EH-Bildu udal taldearen zinegotzi bati** % 80ko dedikazio-erregimena onartzea. Dedikazio honekin loturiko ordainsariak urtean 30.905,90 € izatea.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau indarrean sartzea arduraldia duen zinegotziaren izendapena formalizatzen denetik aurrera.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoa Irekian, eta, halaber, Kontuhartzailetzari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako Udaleko hautatuen erregimen ekonomikoari buruz Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartutako ebazpenaren aldaketa.

**4. Itxitako ekitaldiko fakturak onartzea.**

**4. Aprobación de las facturas del ejercicio cerrado.**

**OGASUN BATZORDEAK 2018KO APIRILAREN 17AN EMANDAKO IRIZPENA.**

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, bere 61. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren

faktura hauek 2018ko ekitaldian jaso dira, baina 2017ko ekitaldiko faktura data dute.

| HARRERA DATA | FTRA. DATA | PARTIDA | HORNITZAILEA | FTRA. ZK. | KONTZEPTUA | KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2018-03-08 | 2017-10-01 | 1100.226.99.431.00 | ARANTZA ORBEGOZO REZOLA | 3A | SUMINISTRO Y REPARACION DE VINILO. PROYECTO "GUNE BIZIAK" | 371,00 € |
| 2018-03-07 | 2017-09-30 | 0900.226.03.335.20 | 28 KANALA | 1913 | MATRIKULAZIO KANPAINA | 836,11 € |
| 2018-04-09 | 2017-05-05 | 0300.226.99.920.20 | ONTINET | 00/17-00310 | PROTECTION ADVANCED EPA RENOVACION ANTIVIRUS | 1.191,85 € |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2018-01-04 | 2017-12 | 0700.223.01.441.20 | TAXI J. OTXANDORENA | 270060 | AUZOTAXI ZERBITZUAK | 344,30 € | |
| 2018-01-02 | 2017-12-21 | 1100.226.06.172.00 | USURBILGO LANBIDE ESKOLA | 100/17 | TOLOSAKO ENERGIAAZOKA | 800,00 € | |
| 2018-01-23 | 2017-06-07 | 0700.211.01.920.31 | ALUSTIZA MARGOLARIAK | 203 | ARKAUTE. PARETAK ETA SABAIEN KONPONKETA | 3.202,87 € | |
| 2018-01-12 | 2017-12-27 | 1100.226.08.172.00 | ZUMETA ELEKTRIZITATEA | 147 | TOLOSAKO ENERGIA AZOKAREN SONORIZAZIOA | 411,40 € | |
| 2018-01-02 | 2017-12-29 | HAINBAT | SUMOFIC | F1707297 | FOTOKOPIAGAILUEN KOPIAK | 174,53 € | OHARRAK (1) |
| 2018-01-08 | 2017-12-31 | HAINBAT | AVIA ARRIARAN | A139 | ERREGAIAREN HORNIDURA | 612,58 € | OHARRAK (2) |
| 2018-01-11 | 2017-12-30 | 0700.221.05.153.40 | GASTEARENA | 3665 | BRIGADARAKO ZENBAIT JANTZIEN HORNIDURA | 2.709,80 € | |
| 2018-01-09 | 2017-12-29 | 0400.226.99.135.10 | HAUSIARTE SPORT | 069-H/17 | NEUMATICOS PARA VEHÍCULO MATRÍCULA 3813-DKM | 797,87 € | |
| 2018-01-02 | 2017-12-31 | 0700.223.01.411.20 | JOSE ANTONIO GARCIA | 1146 | ABENDUKO LANDA AUZOKO TAXI ZERBITZUA | 399,00 € | |
| 2018-01-09 | 2017-12-31 | 0700.223.01.441.20 | PATXI JAUREGI JAUREGI | 78 | ABENDUKO LANDA AUZOKO TAXI ZERBITZUA | 477,40 € | |
| 2018-01-08 | 2017-12-31 | 0700.223.01.441.20 | SALINAS TAXI ZERBITZUA | 17/42 | ABENDUKO LANDA AUZOKO TAXI ZERBITZUA | 732,60 € | |

OHARRAK (1) 0500.220.00.530.00 partidan ez dago konsignazioarik (8,25 euroko kopurua).

OHARRAK (2) 0400.226.99.135.10 partidan ez dago konsignazioarik (90,99 euroko kopurua).

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2017ko abenduaren 31n aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2018ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena osoko bilkurari dagokio.

Hori guztia ikusirik, batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko faktura hau Osoko Bilkurara bidaltzea, onar dezan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** itxitako ekitaldiko faktura-zerrenda.

**5. EHBILDU taldearen izendapen hauen berri ematea: Batzorde informatiboetako ordezkariak eta ordezkoak. Bozeramaileordea.**

**5. Comunicación de los siguientes nombramientos de EHBILDU: Representantes de las comisiones informativas y sus suplentes. Portavoz suplente.**

Batzorde informatiboetako kideen aldaketa hauen berri eman zaie udalbatzarkideei:

**Batzorde informatiboetako ordezkariak eta ordezkoak**

Maria Lasa Arruabarrenak zinegotzi-kargua utzi izanak eta bere ordez Kristina Pelaez Errazkinek kargua hartu izanak batzorde informatibo batzuetan EH Bilduren ordezkariak aldatzea ekarri du. Hauek dira egin diren aldaketak:

**Batzordeko informatiboetako ordezkariak:**

1. Berdintasuna
   - Onintza Lasa Arteaga
   - Kristina Pelaez Errazkin
2. Hirigintza eta azpiegiturak
   - Ibai Iriarte San Vicente
   - Inaki Irazabalbeitia Fernandez
3. Hizkuntza Politika eta Hezkuntza
   - Inaki Irazabalbeitia Fernandez
   - Kristina Pelaez Errazkin
4. Kirolak
   - Peio Etxabe Zabala

- Onintza Lasa Arteaga

5. Gizarte Politika

    - Onintza Lasa Arteaga
    - Kristina Pelaez Errazkin

6. Kultura, Festak eta Gazteria

    - Igor Ezenarro Balda
    - Kristina Pelaez Errazkin

**Batzorde informatiboetako ordezkoak**

